

LUZIAREN KAMIOI BERRIA

Duela urte asko istorio hau Gipuzkoako herri txiki batean gertatu zen.

Herri horretan biztanle gutxi bizi ziren, 15 haur zeuden, 7 mutil eta 8 neska. Asteburuetan denak parkean jolasten zuten. Han futbolean, saskibaloian, harrapaketan, kartetan...jolasten zuten.

Luzia talde horretan zegoen, 6 urte zituen. Ez zen oso altua, ile luzea zuen, begi marroiak eta betaurrekoak zituen, isila eta lotsatia zen.

Beti bakarrik egoten zen. Parkera, bere amonak oparitu zion kamioi laranja eta txiki bat eramaten zuen. Harea zegoen leku batean kamioiarekin aurrera eta atzera ibiltzen zen.

Egun batean Manex, herriko mutiko bat, Luziarengana hurbildu zen eta galdetu zion:

Manex.: Luzia, gurekin jolastu nahi duzu?

Luzia: Ez ez, nire kamioi honekin jolastu nahi dut, handia naizenean kamioilaria izan nahi dut.

Manex: Luzia, kamioilariak mutilak dira. Neskak ez dira kamioilariak!!

Manexek farre egin zuen eta joan zen.

Beste egun batean, Luzia, kamioilariak bezala jantzita eta kamioi txikiarekin parkean agertu zen.

Beste ume guztiak:

- Luzia kamioilari, Luzia kamioilari...barre egiten zioten.

Luzia triste jarri zen hori entzun zuenean eta zuhaitz baten azpian eseri zen.

Luziak 18 urte bete zituenean kamioi gida-baimena atera nahi zuen, kamioilaria izateko eta kamioi berri bat gidatu ahal izateko.

Luziak Gurasoekin eztabaida asko zituen, aitak eta amak ez zuten nahi Luzia kamioilaria izatea...baina Luziak hori ahal izateko.

Lan asko egin ondoren eta dirua lortu zuenean....gidabaimena ateratzeko eguna iritsi zen.

Bi froga egin behar zituen.

Lehenengo froga pasa zuen , asko ikasi zuelako. Bigarren frogan kamioiarekin errepidetik ibili behar zuen baina.... ez zuen gainditu urduri jarri zelako eta Luzia triste jarri zen....

Luziaren gurasoek lasai egoteko esan zioten , animatzen hasi ziren... Felix.engana laguntza eskatzera joan ziren...

Felix bere gurasoen laguna zen, kamioi gidari ,eta kamioi asko zituena. Oso gizon indartsua zen, burusoila, altua, asko hitzegiten zuena eta jatorra.

Felix-ek Luziari lasai egoteko esan zion, oso ondo gidatzen zuelako, normala zela urduri jartzea kamioiak oso handiak zirelako.

Froga egin baino lehen tila bat hartzeko eta ariketa batzuk egiteko esan zion.

Frogaren egunean, Luziak, Felisek esan ziona egin zuen eta....bai!!!! Luziak kamioi gidaria izateko baimena lortu zuen.

Kamioi baimena atera zuen lehenengo neska izan zen. Telebistan atera zen eta famatua egin zen.

Herriko lagunak enteratu zirenean, Luziarengana joan ziren, zoriondu zuten eta txikitari egindako farrengatik barkamena eskatu zioten. Gurasoek Luzia pozik ikusten zuten eta beraiek ere pozik zeuden.

Luziak txikitako gauzak ahaztu zituen eta bere kamioi berriarekin alde batetik bestera ibiltzen zen.

Txikitan triste eta bakarrik zegoen neska orain oso pozik zegoen jende berria ezagutzen eta bidaia asko egiten.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Aguraingo plazan.